

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Laguntza pertsonala eskainiko diegu gure bezeroei, tratu kordial baten bidez gure dendara etortzeko aukera izango dute eta horrela bezeroak eroso sentituko dira gurekin, eta bere ingurukoei adieraziko die gurekin harremana izateko. Bezeroak produktua erosi ahal izateko, lehenik dendara etorri beharko du guk bere ahoko neurriak hartzeko. Ondoren, aukeran izango du produktua berak dendan eskura izateko edo eskaera etxera bidaltzeko.

Baita ere autozerbitzua eskeiniko diegu gure bezeroei, hau da webgune baten bitartez, hortz garbigailu makinari buruzko informazioa eskainiko diegu gure bezeroei, dendara joan ez izateko eta horrela lana errazten diegu bezeroei. Informazio horretan azalduko dira gurekin harremana izateko telefonoa, baita ere gure Gmail-a eta produktuaren prezioa. Ondoren, aukera izango dute gure dendara etortzea edo ez informazioa jasota. Bezeroek beraien iritzi kritikoak aipatzeko aukera emango diegu, beste bezeroentzat lagungarri izateko eta guk makina hobetu ahal izateko. Horrez gain, tarifa batzuk eskainiko dizkiegu gure bezeroei, anuntzio batzuen bitartez, gure zerbitzuetan jarraitzeko eta bezero gehiago lortu ahal izateko.

